

HIRIGINTZA FITXA. - 2 SO. FERMIN KALBETON ZUMARDIA.
DEBA ALDEA**1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.****1.1. GARAPENeko PLANEAMENDUA.**

1985eko Hiri Antolaketako Arauetan ez dago aurreikusia.

1.2. HIRI EGITURA.

Lurraldearen egitura organikoa eratzen duen elementua da, herriko plaza publiko edo parke nagusia izaki, bai kokapenagatik bai bere ezaugarriengatik.
Esparru barruko espazioak titularitate publikokoak dira.

1.3. ESPARRUAREN AZALERA. 27.050 m²**2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.**

2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Hiritarra.

2.2. KALIFIKAZIO OROKORRA : HIRIKO ESPAZIO LIBREEN ZONA (11. artikulua: F.1).

2.3. ALDERDIEN MUGAKETA : Oraingo Hiri Antolaketako Arauetako alderdia finkatuko dira.

3. ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK.

Hiri parkea orain duen mugaketaz finkatzea.

Trenbidea altxatzeko eta Fermin Kalbeton zumardia, hareatzako zabalgunearen parean, gainerako hiri bilbearekin lotzeko jarduketara proposamenen ondorioz sortzen diren espazio libreak baliatuz, Fermin Kalbeton zumardiaren azalera eta esparrua handitzea xede duen edozein antolamendu erakunde eskudunak burutu beharko du, eta Trenbideko Lurralde Plan Sektorialaren bidez gauzatu beharko da, Debako Udalarari entzun ondoren.

Agirre etxetik abiatutako ibilbide kultural arkitektonikoaren amaiera (3 KII, Kultur Intereseko Ibilbidea).

Barruan, herriak behar dituen ekipamendu eraikinak jartzea.

3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA.

Erabilera eta jabari publikoko espazio libreen sistema orokorra. Hiri Antolaketako Arauen 116. artikulua arabera.

3.2. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

Hirigintza Arauen 116. artikulua arabera.

3.3. PROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.

Probetxamendua. Ez da ezarri. Ekipamendu publikoen kasuan, proiektu arkitektonikoak ezingo du BS+2+EP profila gainditu; sestra azpian har daitekeen azalera 2.000 -koa izango da, solairuan har daitekeena 1.000 m²-koa, eta solairu estalgarriarena, berriz, 3.500 m²-koa.

Eraikuntza. Ekipamendu publiko bat egitea baimenduko da lurpeko aparkalekuen gainean, orain Kiosko plazak hartzen duen lekuan, treneko azpiestazioren eraikina osoki integratuz.

Erabilera Plazako zerbitzu osagarriak.
Berdegunea, oinezkoentzako pasealekua. Plaza.

Eraikinaren erabilera: zibiko-sozial didaktikoa eta kulturala (auditorioa, zinea, musika eskola...).

Zaharren egoitza (hemen bideragarria ez bada, 4 SO. "Eguneko zentroa" unitatean ezarriko da).

3.4. EKIPAMENDU ETA HIRITARTZE BALDINTZAK.

Dagozkion obra proiektuen arabekoak.

3.5. PLANEAMENDU ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Aipatu esparruan edozein esku-hartze egiteko, jabari publikoko lurretan eragiten duenez, beharrezkoa izango da dagozkion emakidak edo baimenak edukitzea eta Hiri Antolaketako Arau hauetan kasu bakoitzerako adierazitako zehaztapenetara lotzea.

Xehetasunezko azterketa.

Obra osagarrien eraikuntza eta hiritartze proiektua.